

## A.11.1. GISASTU BIDE

A.11.1. GISASTUBIDE

Azalera: 4.174 m2

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Area honek Txonta eta Gisastu kaleen behealdeak hartzen ditu, oro har.

Eremu honetatik kanpo geratzen da AI 125 Txonta Jarduketa Integratua, horren zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

Ekintza hauek aurreikusten dira zona honetan:

* Lopezenenguako Xehetasun azterketako erabakiak gauzatzea, dokumentu horretan sartzen den bizitegi eraikina finkatuz.

* Txonta Kalearen hasieran espazio publiko bat sortzea, auzo berrian zehar eratuko den oinezkoen ibilbidearen abiapuntu gisa, eta bizitegi eraikin bat sortzea.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2A "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakora egokitu beharko dira.

Planeamendu Gehituko Eremu bat sartzen da, eta horren antolaketa edo ordenazio xehatua dagokion garapen planeamenduari egokitu beharko zaio:

API 11 LOPEZENENGUA 6. BJUaren XEHETASUNEZKO AZTERLANA
Azalera: 3.050 m2
Planeamendua:

* LOPEZENENGUA 6 IJUren Xehetasunezko Azterlanak behin betiko onespena jaso zuen 2002ko abenduaren 23an egindako udal osoko bilkuran eta 2003ko urtarrilaren 10eko GAOan argitaratu zen, 6. zenbakia zeraman alean hain zuzen ere.